

# Soraluze be badoia!

euskaraz  
bai  
bazatoz?



**Merkatariek, euskaraz bai!**



**Sorako neskek, euskaraz bai!**



**Ikasleek, euskaraz bai!**



**Musika Eskolak, euskaraz bai!**



**Pil-pileaneko Zuzendaritzak,  
euskaraz bai!**



## BEC-erako autobusa



Izena emateko (9a baino lehen)  
Pil-pilean Euskara Elkarte  
Errabal 15, 943751304,  
koordinazioa@pilpilean.com

## ABENDUAK 13, 16:30etan Estazioan

Prezioa: 10 euro (8 euro pil-bazkideentzat)



Sarrerak Pil-pileanek eskuratuko dizkizu. Doakoak dira.

Antolatzaileak: Pil-pilean, EHE eta AEK

- Zer berri: Kiroldegi gaineko obrak geldi daude
- Entzutekuak: Aurora Zabala, edertasun lehiaketetarako txakur hazlea

soraluzeko  
hamabostekaria **189.** alea  
2008ko abenduaren 5ean

# pil-pilean



## Merkatariak indarrak batzen

**EZKONTZA BATERA JOATEA...**

**150** EURO BAKOITZEKO



**PIL-PILEANEKO BAZKIDE EGITEA...**

**30** EURO URTEAN



**PIL-PILEAN**  
EUSKARA ELKARTEA

**EGIN ZAITEZ PIL-PILEANDARRA!**

Bete ondorengo datuak eta bidali 27. posta kutxara (20.590 Soraluze), deitu **943 75 13 04** zenbakira, ekarri bulegora (Errabal 15, 1) edo idatzi [koordinazioa@pilpilean.com](mailto:koordinazioa@pilpilean.com) helbidera.

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Posta kodea:

Telefonoa:

Jaiotze-data:

Kontu korronte zenbakia:

Jubilatuen eta 18 urtetik beherakoen urteko kuota 20 eurokoa da.



# GOL

**GOL industriak S.A:**  
Sagar Erreka, 19 45PK  
Telefona: 34 943 75 21 00  
Faxa: 34 943 75 17 12  
20590 SORALUZE



**SORALUCE**

*Fresaketa teknologia*



**SORALUCE**  
GRUPO DANOBAT

**SORALUCE S.Coop.** • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: [www.soraluce.com](http://www.soraluce.com)

**ARRATE GISASOLA****OINATZE SILBETI**

## AMA ETA ALABA

**K**aixo Oinatze!  
Asteleheneko nagixak kendu ezinda nembilela amak deitu dau etxera, “*Arrate, badakizu zein hil dan?*” Herrikoren baten izena entzugo nebalakuan eta zera bota dau, Mikel Laboa. Gertuko baten bat hil izan bazan moduan sentittu dot barruan, danba!!

Gertukua izan barik danbatekua arrarua egin jata hasieran, baina gerotxuago konturatu naiz nere bizitzan zihar bere abestixek euki daben presentzia haundixakin, eta beraz, eraginakin. Eta goizak aurrera jarraitu daben arren, Mike-lenak etengabe bueltaka. Bizitzako pasarte ezberdinak gogora ekartzen desten doinuak; lagun artian kantatu dittugunak, azken agur batekuak, amak erakutsitakuak... berak idatzitakuekin egindako kantuak edo beste batzuen letrekin sortu dittuanak.

Bizitzako irakasgaiak be topatu izan dittut behin eta berriz kantau dittudanian; “*ihes betea zilegi balitz...*”, “*izarren hautsa egun batean...*”, “*...hagitzez ederragoak dira neskatilaren irriak*”... zerrenda luzian artian, badago oso gustoko doten bat, ama eta alaba garan heinian kontutan eukitzekua Oinatze. Alaba izanda errez asko ulertu doguna, eta nere ustian, ama garan aldetik kontutan hartu eta praktikara eramane biharko gendukena: “*gogo eta gorputzaren zilbor hesteak, bi kate*”. Holan izango gara eta dira txori, maittatuko dogu osoki, biluztuko dogu elkar hostoz hosto, eta orduan jakingo dabe, oroitzen gaittuenian, gure begixen onduan dagozela. ☺

### Goguan hartzeko

**Ez nau izutzen negu hurbilak uda betezko beroan dakidalako irauten duela orainak ere geroan.**

Xabier Lete / Mikel Laboa

**K**aixo maitea!  
Asteleheneko berri horrekin nik ere ikaragarritzko hotzikara sentitu nuen gorputzean. Nikuste, euskal kultura “*umezurtz*” geratu dela, izar haundienetako bat hil da. Garai zailenetan ere, laguntza gutxirekin, gure kultura aberasten eta zabaltzen jardun zuen beste askoren artean (“*ez dok hamairu*”...) ez zuten 700.000 euroko diru laguntzarik behar izan. Herri honetikiko maitasuna aski izan zuten.

Aipatu duzun abestia, “*gogo eta gorputzaren zilbor-hesteak*” urteluzeetan izan dut gustoko, nahiz eta esanahia ongi ulertu ez. Baina gaur da eguna, ama eta alaba naizen heinean, gero eta gehiago maite dudala. Pentsa Arrate, Lur jaio zenetik gaue-ro-gaue abesten diodan kantua da. Goxogoxo ohean etzanda, moztu zen zilbor-hestea berriro lotu nahian. Ai, politta!! Zein esanahi sakona duen abesti honetik!! Zein zaila den gogoaren zilbor hestea etetea! Etengo den egunaz pentsatzeaz bakarrik...

Baina hori da azken finean gurasook daukagun lanik konplikatu eta era berean polittena. Gorputz zein gogoaren zilbor-hesteak eten arren, lotura berriak eraikitzen asmatzea. Etendura pertsonal horiek, famili-herri lotura bihurtzeko prozesua eraikitzea. Gure herri zahar honetatik arnasten ikasgaraztea, herria bera arnas berri deuzaten azken finean.

Maisuak abesten zuen bezela “*gu sortu ginen enbor beretik, sortuko dira besteak*”. ☺

**Arrate, badakizu zein hil dan?**

**Mikel Laboa**

Arrate Gisasola

**Euskal kultura umezurtz geratu da**

Oinatze Silbeti



## GUTUNAK

### Asfaltoaren Legealdia Ote?

Udal Gobernuak ( ANV / EA ) jakinarazi digu hurrengo hilabetean herriko zenbait kaletan asfaltatze lanak hasiko direla. Lan hauek 286.000 eurotako kostua izango dute. Udal Osoko bilkuran adierazitako bezala honakoa da gure postura. Lehenik eta behin adierazi nahi dugu hauteskunde kanpainan Soraluzen aurkeztu ziren Alderdi politikoetatik proiektu hau aurkeztu zuen bakarra EAJ/PNV izan zela. Ondorioz ez gaude lan hauek egitearen aurka.

Proiektu hauek IZARTU II plangintzaren bitartez finantziatzeko asmoa dauka Udal Gobernuak. Hau da guk onartzen ez duguna. IZARTU II egitasmoaren baitan Alde- Zaharraren urbanizatze lanak zehazten ziren, Kalebarren- Santa Anaren urbanizatze lanak baita Zubi Nagusiarenak ere. Bi proiektu hauek gauzatu dira eta denok ikus dezakegu herriak jasan duen aldaketa. Bestalde, Plaza Zaharraren, Etxaburueta kalearen eta Erregetxeko orubearen urbanizazio lanak ere

planteatzen ziren. Azken hiru proiektuak 2008 ko Udal Aurrekontuetan barneratzeko eskatu genion Udal gobernuari eta ezezko borobila eman ziguten. Beraz, noiz eta nola pentsatzen dute proiektu hauek gauzatzea?

Bere garaian ezker abertzaleak IZARTU II egitasmoaren aurka bozkatu zuen. EAJ/PNV ek eginkudeaketari esker lorturiko diruen errentetatik bizi dira hauek. Bestela esan dezatela publikoki urtebetean, gobernuan daudenetik, zenbat diru lortu duten Soraluzerentzat!

Ezker abertzaleak aurreko legealdia " zementoaren " legealdia bezala kalifikatu zuen. Aurreko legealdian, Atxuriko parkea, Loraldekoa, Arraikuakoa eta Arrizabaletakoa egin ziren besteak beste. Beraz harriztekoa da kalifikazio hau! Beraien logika erabiliz nola kalifikatuko genuke oraingo legealdia, asfaltoaren legealdia ote?

### SORALUZKO EAJ/PNV UDAL TALDEA

### Abenduak 6 Konstituzio Espanolak 30 urte

Inposaketa – Demokrazia eza.  
Todo atado y bien atado- Monarkia  
Gernikako estatutua, beti espainiaren menpe.  
Espainia edo Frantzia, Euskal Herria zatituta.

Ibarretxeren kontsulta.  
Konstituzio espanolak tope.  
Honen aurrean PNVk zer?. PSOEren aurrekontuak onartu, espainiako erregeari ongietorria, bandera espainolari amen!!

Baina aldaketa garaiak datoz.

Herriak hitza eta erabakia. Autodeterminazio eskubidea. Lurraldetasuna, zazpi probintzia.  
Euskadi edo Euskal Herria. Hiru edo zazpi.  
Iruzurra edo Marko demokratikoa. Zuk erabaki!!

Abenduak 6an inposatutako konstituzioari EZ!!  
Danok Durangora !!

### Soraluzeko BATASUNA



**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04  
**e-maila:** pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Leire Iturbe, Enara Agirre, Jon Basmari, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkari-  
esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKO  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## bittartetik



Xabier Iñurrieta Labaien  
**Plazentziatarra ete  
"plaentxi"?** II

Gure hizkeraren porteria gol erraldoia izan zan Estazio kaleko eskolari "**PLAENTXI H.I.**" izena ipintzia. Ez dakit herritarrek edo kanpoko maisuen eraginez egin zan baina hor dago, ume-umetatik gure haurrak jakin deitzen izen hori. Orduetik aurrera zelako goleadia! Batetik "**Moto Club Plaentxi**" dala, bestetik irratiko iragarkixetan "**Plentxian**" zer edo zer antolatu dala, jaietako ekimenen aurkezliak "**Plaentxiarrok**" gora eta behera, Laskurain pelotarixan aldeko pankartan "**Plaentxia hirekin**", eta abar. Guzti horren ondorian errematia, orain artekuak golak baziran azkena KO-a izan da.

Gure aurrekuendako labadegain leku emblematikua izan dan moduan guretako zubi ingurua zan edozeinekin gelditze tokixa. Izena ematen dotsan (*Gilaneko zubixa*) tabernako atian gainian errotulo handi distiratsua ipini dabe eta hau dino: "**PLAENTXIA.COM**". Azpian dagan karteltxua, "**GILA**" dinuena ia ez da nabarmentzen. Gorago esan dotena, KO galanta. Arraixua!

### Zelan hasi zinan txakur lehiaketetan?

Oin dala 15 urte hasi nintzan. Doberman arrazako txakurrak zittuan holandes bat ezagutu neban, zehazki, Espainiara Doberman arraza ezagutzera eman zebana eta berak sortu zotan animala hauekiko afizina. Nire lehenengo txakurrakin, Indiokin, Espainiako txapelketan lehena izatia lortu neban eta horrek be animatu ninduan honetan segitzera.

### Zer baloratzen da lehiaketetan?

Txakurran morfologia begiratzen da; gorpuzkeria osasuntsua eta itxura fisikua be. Edertasuna bilatzen da azken finian.

### Eta entrenamenduak nolakuak izaten dira?

Durangora edo Gasteizera jauten naiz txakurrekin eta han egitten doguz prestaketa lanak. Bakoitzak bere pelotia daka eta horrekin egitten dittugu jolasak. Txakuraren fisikua eta dietak be zaindu bihar dira. Egunian kilo bat pentsu jaten dabe eta korrika egittera astian bitan jauten gara gutxienez.

### Zenbat herrialdetan lehiatu dozue?

Frantzia, Belgika, Holanda, Portugalen eta Italian be ibili gara. Urtarrilian Oportora

# ((ENTZUTEKUAK))

## Aurora Zabala Bilbao, edertasun lehiaketetarako txakurrak hazten ditu



noia eta hango lehiaketan irabaziz gero, Portugaleko lehenengok geratuko gara.


### Honetaz bizitzeko lain diru ematen dau txapelketetan aritziak?

Ez, batez be afizina da. Arraza honekiko zaleatasuna barru barruraino sartuta dakat baina txapelketek ez dabe dirurik ematen. Hau guztia egitteko dirua txakur kumiak saltzen irabazten dot.

### Zer iruditzen jatzu Dobermanei buruz esaten dana?

Momentuz lau Doberman ditut, bi eme eta bi ar. Oso txakur fidelak dira eta maittagarriak. Arraza arriskutsuen zerrendatik kanpo geratu dira orain eta kontrakua esaten dabenak gezurra esaten dau. 🐾

*Dobermanak oso txakur fidel eta maittagarriak dira.*



**TXURRUKA**  
**JATETXEA**

Txurruka auzoa  
20590 SORALUZE

T. 943 75 15 81

**H.NOS. BENITO ANAIAK**



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu zen



reko dela adierazi eta bizitzako eremu guztietan erabilgarri dela azpimarratu nahi da. Horren harira, Pil-Pilean Euskara Elkar-teak bideo bat osatu du munduan zehar dauden soraluzetar euskaldunen testigantzekin. Mikel eta Gorka Tornos (*Polonia eta Portugaldik*), Miren Lurdes Pastoriza (*Finlandiatik*) eta Miren Alberdi (*Txiletik*) dira bideoeko protagonistak. EPA, AEK eta DBH institutuan zabaldu zuten bideoa, baita Plaentzia.com webgunean ere (*oraindik ikusgai dago bertan*).

## “Besarkatu zure hitza...”

DBHko institutuan ere izan zuten euskarari omenaldi txiki bat egiteko aukera. Ikasle guztien artean, euskara gaia izanik, eslogan lehiaketa egin zuten eta Leire Garciak irabazi zuen honakoarekin: “Besarkatu zure hitza, zure esku baitago euskararen bizitza”. 🌱

Kanpoan bizi diren herritarrekin egindako bideoaren irudia.

**E**uskararen Nazioarteko Eguna 1949. urtean sortu zen Eusko Ikaskuntzaren baitan. Euskararen balio unibertsala aldarrikatzen da egun honetan; euskara ere beste hizkuntzen pa-

## ETAren atentatua salatzen elkarteratzea egin da



Atzo, hilak 3, ETak Inazio Uria Aituna y Uria enpresako burua hil zuen Azpetian, tiroz eta hau salatzen EUDELek Euskal Herriko herri guztietan elkarteratzeak egiteko deialdia egin zuen. Soraluzen, egunean eguerdiko 12:00etan bildu ziren.

## 80 urtetik goragokoen bazkaria



Bazkaria, omenaldia eta dantzaldia izan zituzten 80 urte edo gehiago dituzten 76 plazentziatarrek. Itxaropenan bazkaldu ostean, andra eta gizon nagusienak omendu zituzten: Inazio Hernabide 91 urteduna eta Trinidad Larrañaga 95 urteduna.

## Txortari hainbat omenaldi egin dizkiote



Txortaren heriotzaren 14. urteurrenean hiru omenaldi egin dizkiote. Azaroaren 18an Soraluzean kontzentrazioa egin zen, eta Loiu eta Bergaran ere omendu zuten.

## Zorionak Feliciano eta urte askotarako

Feliciano Rodriguezek 102 urte bete zituen azaroaren 25ean. Palencian jaiotakoa bada ere, gazte zela Soraluzean etorri eta jostun lanak eginez jardun zuen. 24 urte daramatza Zaharren Egoitzan bizitzen. 100 urte bete zituenean oroigarri bat eman zioten eta oraingoan lore sorta ederrak jaso ditu.



Iturria: I. Arluziaga



## SAN ANDRES

### ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



## MENDIZABAL

### okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99

**SORALUZE**



Korrika 16 ate joka

16. korrika *æk*  
ongi etorri

Tutera-Gasteiz 09  
martxoaren 26ak  
apirilaren 5era

euskaraz bizi nahi dugunon herrira!

Martxoaren 26an Tutera hasi eta apirilaren 5ean amaituko da Gasteizen Korrika 16. Soraluzetik apirilaren 4an pasatuko da, Eibartik datorren lekukoari txanda hartuz. Aurtengo leloa ONGI ETORRI! izango da, euskaldundu diren kanpotarrak omendu nahian.

Korrika laguntzaile egin daiteke dagoeneko. 12 euroren truke, txartela, katalogoa eta laguntzaile pina etxera bidaltzen dituzte. Pil-pileanera edo AEK euskaltegira jo daiteke informazioa jasotzeko.

### KZguneko abenduko eskaintza

Herriko KZgunea abenduaren 1etik 19ra asteleheneretik barixakura goizez zabalduko da 9:00etatik 13:00etara eta bertako arduraduna Aitor Madrid izango da. Interneten biltzen ikasteko, egunkari digitalak irakurtzeko, postalak bidaltzeko, irudi digitalen tratamendurako eta erosketak egiteko ikastaroak izango dira. Informazioa zehatza plaentxia.com helbidean edo KZgunean bertan.

## Kiroldegi gaineko obrak geldi daude



**K**iroldegi gaineko obrak Keginen ziharduen Lekber enpresak kiebra jo du eta bertan behera laga ditu lanok. Krisi ekonomikoa dela eta ezin izan die azpikontrataturako enpresei zorrak ordaindu eta porrot egin du. Amaitzeke zituen hainbat lan, Bergarako Babes Ofizialeko 30 etxebizitza eta Soraluzeko kiroldegiko zabalkuntza lanak ere bukatu gabe laga ditu.

### Foru Aldundiaren ardurapean

Foru Aldundia da obra honen arduraduna, zehazki Lurralde Antolamendu Sailak du honen erantzunkizun nagusia. Egungo

Udal Gobernuak ez zuen egokitzen hartu proiektu hau eta agintera iritsitakoan Aldundiari jakinarazi zion herriak beste lehentasun batzuk zituela, baina proiektuak aurrera egin zuten. Sei hilabeteko atzerapenarekin hasi ziren Kiroldegiaren zabalkuntza lanak egiten eta berez, azaroaren amaierarako amaituta egotea espero zuten baina ez da hala izan. Beste enpresa baten esku geratu beharko da obra bukatzea, baina oraindik Foru Aldundiak ez du horren berri zehatzik eman. Eraikitzaile berria topatu arte, obra geldirik egongo da. 🌀

**ARRANO**  
tabernia

etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua

etxera

Juan Mari  
arraindegia

Eguneroko  
arraina  
eta konjelatuak

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
T. 943 75 24 40

**MAPFRE**

SZ SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabolatz, 5-B Behea  
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)  
e-mail: jlibarza@infonegocio.com

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12  
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78  
FAX: 943 75 16 10

**ELIZPE** Hortz Klinika

GURE ZERBITZUAK  
Ortodontzia ikustezina  
Implanteak

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Eliburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67



## Merkatarien elkarteak sortzeko lehen pausoak

Bat egiteak indarra ematen du. Hortan dihardute herriko dendari, tabernari, ile- apaintzaile eta beste hainbat ofiziotako merkatariak; elkarte bat sortzeko bidean dira.

Soraluzeko merkataritzak beheraka egin du nabarmen azken urteotan. Merkatarien esanetan gero eta gehiago dira inguruko herrietako dendetan erosten dutenak, herriko salmentak nabarmen beheraka eginez. Aurten 65 merkatal gune daude herrian; 10 taberna, 4 jatetxe eta 51 denda. 1999an baino 19 gutxiago.

Jeitsiera honi aurre egiteko asmotan, herriko merkatariak merkataritzak elkarte bat sortzeko lehenengo pausoak ematen ari dira. Udalak deituta, duela bi aste inguru egin zuten lehenengo bilera. Elkarteak sortzeko beharraz berba egin zuten, egoeraren analisia egin eta proposamenak biltzeko.

Erantzun ona ikusita, aurrera egitea erabaki zuten merkatariak. Eibarren Merkatariarentzat dagoen gabinetek bideratuko du Soraluzeko merkatarien elkarteak eta Leire Ojanguren eibartarra izango da honen koordinatzailea.

### Dirulaguntzak jasotzeko bidea

Debabarreneko herri guztiek dute Merkataritzak Elkarte bat,

### Hauek dira elkarteak osatzeko izena eman dutenak:

|                            |
|----------------------------|
| Estankoa                   |
| Mutua General de seguros   |
| Arkupe                     |
| Eginberri                  |
| Criado Fruta-denda         |
| Mari Mar harategia         |
| Comercial Vila             |
| Iratxo goxotegia           |
| Salazar altzariak          |
| Edurtza                    |
| Marisa ile-apaindegia      |
| Venancio Rico              |
| Etxabe harategia           |
| Iñarra harategia           |
| Ufala                      |
| Mendizabal okindegia       |
| Lilurak                    |
| Belarrak                   |
| S. Coop. Consumo Placencia |
| Optica Lacuesta            |
| Txurixtu gozotegia         |
| Josu bitxi-denda           |
| Benito altzariak           |
| Txoko taberna              |
| Mendata taberna            |
| Intxisu                    |
| Bolia taberna              |
| Mapfre aseguroak           |
| Vidal frutadenda           |

Soraluzek izan ezik. Hori ere deialdia egiteko arrazoietakoa bat izan da, Udalak azaldu duenez. Baita dirulaguntzak jasotzeko aukera ere. Merkatarien Elkarteak zein Udalak, dirulaguntzak eskuratuko dituzte. Dendari-entzat 6000. eurokoa izango da eta 24 000. eurokoa Udalarentzat. Dendari batzuek azaldu dutenez, jasoko duten dirulaguntzarekin astebukaeretan edo asteko egun berezietan kaleak girotzeko ekimenak prestatuko dituzte eta erosketek ere izango dute beren ordainsaria, zozketen bitartez, adibidez. Hau dena, merkatariak hileroko kuotaren bitartez finantzatu dute. Udalak herriko kaleak eta ingurunea hobetzeko erabiliko du dirua.

Kalitatezko merkataritzak sare bat sortzeko beharraz ohartu dira herriko merkatariak, kalitatezko produktuak eskaini, bezeroari eman beharreko arreta prestatu eta prezio egokiak finkatu dituztena. Hau da elkarte partaide diren hainbat dendarik esan digutena. ☺

- 1- Zergaitik hartu behar duzue parte merkatarien elkarteak?
- 2- Zeintzuk izango dira elkarteak ekarriko dituen onurak?
- 3- Zer da herriak behar duena merkataritzari bultzada bat emateko?



**Gure helburua merkataritza indartzea da**

### **Venancio Rico**

#### **Plaza Barriko frutadenda**

- 1- Herrian salmentekin dagoen arazoa larria da. Jende asko inguruko herrietara joaten da erosketak egitera eta herriko dendak gero eta indar gutxiago dute. Gure helburua herriko merkataritzari bultzada bat ematea da. Merkatarien egoera ahal den neurrian konpontzeko egingo dugu lan.
- 2- Onurak merkatarientzat eta herriarentzat izango dira. Dirulanguntzak egongo dira bai guretzat eta baita Udalarentzat ere. Honetaz gaiz, astebukaeretan edo astean zehar ekitaldiak antolatuko ditugu eta honek herriko giroa berpiztuko duela uste dut.
- 3- Kaleetan giro gehiago, dirua, baina batez ere herriko dendetan erostea edo bertan geratzeko aisialdi eskaintza zabala egotea.



### **Marisa Santomé**

#### **Marisa Ileapaindegia**

- 1- Indarrak batu behar ditugu. Bakarka dagoen arazoari aurre egitea zaila da eta herrian giroa sortzeko denak martxan jartzea beharrezkoa da.
- 2- Zaila da dagoen egoera aldatzea baina onurak denok gozatuko ditugu. Herrian giro aldetik ez dago gauza handirik eta gutxienez saiatu egin behar gara.
- 3- Jakingo banu! Adin tarte guztiei aisialdi eskaintza zabala luzatzea izango da gure helburuetako bat. Gaur egun prisaka bizi gara eta horrek erosketak denak batera eta merkatal gune handi baten egitera garamatza. Gure eskaintza nagusia momentuz, jendearekiko harreman estu eta pertsonala eskaintzea da, horrek desberdintzen gaitu.

**Indarrak batu behar ditugu**



**Onurak gehien bat tabernarientzat izango dira**

### **Mari Mar Deza**

#### **Mari Mar harategia**

- 1- Elkarte sortzeko ideia oso interesgarria iruditzen zait. Denon artean egoera hobetuko dugula uste dut. Badakit kanpotarrak ez ditugula herrira erakarriko baina gure helburua beste bat da. Herritarrak herrian erostera animatu nahi ditugu.
- 2- Onurak gehien bat tabernarientzat izango dira. Errealista naiz eta badakit dendek ez dutela askoz ere gehiago salduko baina kaleko giroa sortzea behar beharrezkoa ikusten dut.
- 3- Zaila da galdera hau erantzutea. Herriko jende askok kanpoan erosten du baina agian gauzak antolatzen badira egun horretan herrian geratu eta giroa sortuko da. Eibarraren adibidez, umeentzat jolas-parkea antolatzen da.



### **Gregorito Uribe**

#### **Mendata taberna**

- 1- Denon artean indarrak batu eta egoerari aurre egiteko. Kultura landu eta erabaki sozialetan hitza izateko.
- 2- Giro gehiago lortzea espero dugu, herriari bizitasun pixkat emateko.
- 3- Asteburuetan gutxienez, jendea herrian geratzeko aisialdi eskaintza zabala behar da, adin tarte guztiak bilduko dituen.

**Herriak aisialdi eskaintza zabala behar du**

# ZER TRISTEN DOTSAZU?

## Ze abantaila ikusten dotsazu merkatarixak batziari?

Herriko merkataritzak beheraka egin du nabarmen azkenaldian; askok inguruko herrietan egiten dituzte erosketak. Hau dela eta, merkatariak batu dira eta elkarte bat sortzea pentsatu dute.

**LURDES MAIZTEGI**  
Etxekoandria



**MIREN AGIRRE**  
Etxekoandria



**MANUEL GALARRAGA**  
Jubilatua



**MIKEL ARIZNABARRETA**  
Jubilatua



**O**so ondo ikusten dot merkatarixak batzia, Eibarren be sortu dabe elkartia eta ondo doiala esan doste. Herriko dendak zaindu bihar dira eta hau herrixan erosten egingo da. Honek herrixari bizitza emongo dotsala uste dot.

**O**so ondo iruditzen jata. Dendak falta dira herrixan eta holako ekimen batek indarra emongo dotsa merkataritzari. Herrixan erostiak bizitza ekartzen dau eta agian hainbat ekimen ezberdin (zozketak...) egingo dittue. Beren artian be hobeto moldatuko dira.

**H**errixan erostiak dirua herrixan geratzia ekarriko dau eta oso ondo ikusten dot, oin jende gaztia batez be kanpora juaten da erosketak egittera eta herriko merkataritzak bultzada bat bihar dau.

**O**in arte flojo dago herrixan erostian asuntua. Jendiak Eibarren, Bergaran... erosten dau eta batez be, jende nagusixak erosten dau herrixan. Merkatarixak elkarte bat sortzen badabe herriko salmenta indartuko da eta ondo ikusten dot.

### KOMIKIXA



(Gauza gutik kontsolatzen du, gutik penatzen duena)

**Ion Murgizu Pinturak**  
MARGOKETA OROKORREAN  
Empapelatuak  
Estukoak  
Fatxadak  
Eskilarak eta patioak  
Pintura industrialak  
T. 943 75 1324 M. 652 777 030  
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaleta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434  
Jon Azkorbebeitia Txurruka  
K.Z. 20.000.752  
**HORTZ KLINIKA**  
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

### Umeentzat zinema karteldegia abendutik otsailera bitartean

Atxolin guraso elkarteak, azaroaren 16tik otsailaren 22ra bitarteko aste-buru batzuetan haurrei zuzendutako pelikulak eskainiko ditu Elizako Kaperan. Pelikulen emanaldiak igandetan izango dira, arratsaldeko 17:00etan.



### Abendutik otsailera bitartean eskainiko diren filmeak:

Abenduaren 14an  
"Camp Rock" (gaztelera)  
Abenduaren 21ean  
"Rudolph eta jostailu galduen uhartea"  
Urtarrilaren 11an  
"Perez sagutxoia 2"  
Urtarrilaren 18an  
"Rh+. Sevillano banpiroa"  
Urtarrilaren 25ean  
"Kiriku eta basapiztiak"  
Otsailaren 1ean  
"Noche en el museo" (gaztelera)  
Otsailaren 8an  
"Go Azen!"  
Otsailaren 15ean  
"Niko eta Izarretarako bidea"  
Otsailaren 22an  
"Munduari bira 80 egunetan"



## Soraluzetarrak aurten ere Durangoko azokan egongo dira

Abenduaren 5etik 8ra egingo da Azokaren 43. edizioa. Goizeko 10:30etan irekiko dituzte ateak eta arratsaldeko 20:00ak arte egongo da zabalik. Euskal liburu eta disko azoka honetan soraluzetarrek ere hartuko dute parte. Alde batetik, Badihardugu Elkarteko stand-ean Soraluzeko Baserrien gidaliburua eta Dantza Taldearen 50. urteurreneko DVDa egongo dira salgai. Bestetik, Baleike Kultur Elkarteak Domentx Uzin soraluzetarraren talde ohia den Karidadeko Benta taldeari buruzko DVDa aterra du eta azken emanaldiko eta 2007ko udan eman zituzten beste kontzertu batzuetako irudiak dira Karidadeko Benta. **Lehenengo munduaren azkena** DVDaren bizkar hezurra.

### Musikan ere berrikuntzak

Gaztelupeko Hotsakek ere badu Azokan parte hartzeko asmoa eta



hainbat berrikuntza eramango dituzte erosleen gozamenerako: Kermen Lertxundi, Morau ta Agotak, Esne Beltza, Karelean, Ostolaza eta Pujana, Gainsbourg Gainbegiratzuz, Danbaka (CD/DVD), Katamalo, Keu Agirretxea, Conxita, Belcesblues, Dantza Beltza, Jimmi Bidaurreta, Dender Y Flexo beste hainbat artean. ☺



### Santa Zezilia eguna ospatzen

Azaroaren 22an askok ospatu zuten musikoen eguna, Santa Zezilia. Musika eskolakoak egunean kalejiran irten ziren trikitalariekin batera. Zapatuan berriz, Galtzagorri txarangakoak eta abesbatza eta txistulariak potean ibili ziren herriko kaleak musikaz jantziz.

## GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



**KM**  
*Desing*

*Disèinua eta Sormena*

Poligono Amillaga, n° 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

# Lau soraluzetar Donostiako maratoian



Ane Mendia eta Alberto Calderon lasterketan zehar

**E**uriari eta hotzari aurre eginez, azaroaren 30ean 2 641 lagunek hartu zuten parte 42 kilometro duen Donostiako maratoian. Helmugara iritsi zirenen artean, lau soraluzetar daude. Hauen artean, Xabier Lijok egin zuen denborarik onena 2 ordu, 56 minutu eta 39 segundotan helmugara iritsiz. Emakumeen artean,

Ane Mendia izan zen lehena eta bakarra eta 3 ordu, 54 minutu eta 5 segundo behar izan zituen helmugara iristeko. ☺

#### SAILKAPENA:

|                                |         |
|--------------------------------|---------|
| Xabier Lijo Perez              | 2:56:39 |
| Alberto Calderon Bratos        | 2:58:12 |
| Juan Arsenio Izagirre Maiztegi | 3:12:41 |
| Ane Mendia Elgeta              | 3:54:05 |

## 800 000 euro inguru balioko du futbol zelaia berritzeak

**U**dal Gobernu Taldeak hurrengo urteko aurrekontuetan Futbol zelaia konpontzeko dirua sartzeko asmoa du. Aurrekontua onartzen bada, 800 000 euro inguruko kostua izango du futbol zelaia berritzeak. Ber-

garako futbol zelaia berritzeak, esaterako, 700 000 euroko kostua izan zuen. Diputazioak, 400 000 euroko dirulaguntzak eskaintzen ditu gehienez eta dirua, belar artifiziala eta drenajea jartzeko izango da. ☺

### EMAITZAK

#### PILOTA

|                      |    |
|----------------------|----|
| Gonzalez – Arruti    | 22 |
| Larralde – Laskurain | 17 |

|                          |    |
|--------------------------|----|
| Xala – Barriola          | 22 |
| Mtz de Irujo – Laskurain | 10 |

#### FUTBOLA

|                              |     |
|------------------------------|-----|
| Arizmendi – Sora (Erreg. N.) | 1-3 |
| Gazteak – Sora (Erreg. M.)   | 2-1 |
| Sora (Kad) – Eibartarrak     | 4-1 |
| Sora (Jub) – Eibartarrak     | 2-8 |

### AGENDA

#### FUTBOLA

**Zapatua 6, 16:30etan Mintxetan**  
Elgoibar – Sora (Erreg. N.)

**Ostirala 5, 19:30etan Alustizan**  
Segura Goierri – Sora (Erreg. M.)

**Zapatua 6, 10:00etan Azkoagainen**  
Aloña Mendi – Sora (Kad)

**Zapatua 6, 11:00etan Ezozin**  
Sora (Jub) - Ilintxa

## TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. T. 943 75 17



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

**Errekalde 21**  
**20590 SORALUZE**

T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

## MARE ILEAPAINDEGIA



**ESTETIKA**  
**SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea  
Tel.: 943 75 14 89  
20590 SORALUZE

## GAZTELUPE taberna

tel: 943 75 20 81





# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: M. Aizpuru

## JOSI ETA JOSI

**A** benduan 13an Santa Luzia eguna ospatuko da, Itsuen eta Jostunen Eguna. Lehengo sasoietan ohituria izaten zan neskak josten ikastia, etxeko biharretarako eta lanerako irtenbide bat izateko. Argazkixan, herriko jostunak lanian ageri dira, Piedad Arana irakaslian inguruan.

**Ezkerretik hasitta:** AURITA MARTINEZ,  
ANTOLINA LARREA, MARIA DOLORES ONAINDIA.

**Zutik daguana:** MERCEDES EGUREN.

**Eskumatik hasitta:** MARIA LARREA,  
ANA MARI ORUETA, ROSA ETA PRUDENTXI.

**Erdixan:** MERTXE AIZPURU  
ETA PIEDAD ARANA (IRAKASLIA). 🌀